



2021-22 ikasturteko memoria

012581 - Goierri Eskola Zentru Integratua

013541 - Goierri Eskolako Batxilergoa

An abstract graphic at the bottom of the page composed of several overlapping, semi-transparent 3D cubes or rectangular prisms in shades of blue and grey, creating a sense of depth and geometric complexity.

2022ko uztaila

AURKIBIDEA

1.	Urteko Plana.....	4
1.1.	Hezkuntza arautua.....	4
1.1.1.	Taldearen kopurua eta sailkapena	4
1.1.2.	Egutegia.....	5
1.2.	Lanerako eta etengabeko Hezkuntza	5
2.	Erakundearen egitura	7
2.1.	Gela eta Baliabide materialak	8
2.2.	Giza baliabideak	8
2.3.	PROZESUEN JARDUERA	12
	Kokapen Estrategikoa.....	12
	Pertsonen kudeaketa	12
	Merkatuko definizio eta kokapena	14
	Hasierako Hezkuntza	14
	Lanerako eta Etengabeko Hezkuntza	15
	Baliabide Ekonomikoen kudeaketa	16
	Baliabide eta Aktiboen Kudeaketa	17
	Komunikazioa	18
	Berrikuntza	18
3.	Bezeroenganako Emaizak	21
3.1.	Hezkuntza Arautua	21
3.1.1.	Matrikulazioaren emaitzak.....	21
3.1.2.	Hezkuntza Arautuko emaitzak.....	21
3.1.3.	Grebak	22
3.1.4.	Satisfazioa.....	22
3.1.4.1.	Hezkuntza Arautuko ikasleen satisfazioa	23
3.1.4.2.	Familien satisfazioa	23
3.1.5.	Lanean txertatzea.....	25
3.2.	Hezkuntza ez arautua	26
3.2.1.	Kurtsoen kopurua.....	26

3.2.2.	Hezkuntza ez arautuko ikasleen satisfazioa	27
4.	Pertsonenganako emaitzak.....	28
4.1.	Pertsonen satisfazioa	28
5.	Eskola Kontseilua	29
5.1.	Bilerak.....	¡Error! Marcador no definido.
6.	Orientazio zerbitzua	29
6.1	LANBIDE - KOLOKAZIOA.....	¡Error! Marcador no definido.
6.2	ENPLEGU ORIENTAZIOKO EUSKAL ZERBITZUA (LANBIDE – ORIENTAZIOA) eta INEM ORIENTAZIOA ¡Error! Marcador no definido.	
6.3	ENPLEGU ZENTROA	¡Error! Marcador no definido.
6.4	INCORPORA PROGRAMA	¡Error! Marcador no definido.
6.5	LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK LAN MUNDUAN SARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNENGATIK ... ¡Error! Marcador no definido.	
7.	COVID 19-aren eragina.....	33



1. URTEKO PLANA

1.1. HEZKUNTZA ARAUTUA

1.1.1. TALDEEN KOPURUA ETA SAILKAPENA

2021-2022 kurtzorako, ondorengo taulak jasotako talde kopurua izan ditugu:

Maila	Kurtsoa	Talde kopurua	Banaketa
OLH FPB	1	4	Mekanizazioa Ibilgailuak konpontzea: Elektromekanika Ibilgailuak konpontzea: Karrozeria Sukaldaritza
	2	4	
EMHZ	1	4	1 Soldadura eta galdaragintza 1 Mekanika 1 Mantenu elektromekanikoa 1 Menpek. egoeran dauden pertsonen arreta
	2	4	1 Mekanika 1 Soldadura eta galdaragintza 1 Menpek. egoeran dauden pertsonen arreta 1 Mantenu elektromekanikoa
GMHZ	1	7	1 Administrazio eta finantzak 1 Diseinua fabrikazio mekanikoan 1 Mekatronika industriala 1 Metal Eraikuntzak 2 Fabr. Mek. produkzioaren programazioa 1 Automatizazio eta robotika industriala
	2	7	1 Administrazio eta finantzak 1 Diseinua fabrikazio mekanikoan 1 Mekatronika industriala 1 Metal Eraikuntzak 2 Fabr. Mek. produkzioaren programazioa 1 Automatizazio eta robotika industriala
Batxilergoa	1	2	Zientziak Batxilergoa (LOMCE)
	2	2	Zientziak Batxilergoa (LOMCE)

1.1.2. EGUTEGIA

Hezkuntza arautuaren jarduerari dagokionez, honako egutegia onartu zen:

Egun lektiboak	165
Kurtoaren hasiera	Irailaren 8-tik
Kurtoaren amaiera	Ekainaren 21era
Jai egunak:	✓ Urriak 11, 12 ✓ Azaroak 1 ✓ Abenduak 6, 7, 8 ✓ Gabonetako Oporrak: Abenduak 24-Urtarrilak 9 ✓ Otsailak 28 ✓ Aste Santuko Oporrak: Apirilak 11-24 ✓ Maiatzak 30-31 (Beasaingo jaiak)

1.2. LANERAKO ETA ETENGABEKO HEZKUNTZA


Ondorengo taulak lanerako eta etengabeko hezkuntzari buruzko informazioa bildu du: aurreikusitako kurtsoen antolaketa, iraupena eta datak, prezioa eta gauzatze - maila.

IKASTAROA	Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK / ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS					
ETE-ntzako kontabilitatea <i>Contabilidad para PYMES</i>	80	2021/10/21 2021/12/22	18:30-21:00	---	☒
Soldata ordainsarien eta segurantzaren kudeaketa <i>Gestión de nóminas y seguros sociales</i>	90	2022/03/28 2022/06/14	18:30-21:00	---	☒
AUTOMATIZAZIOA ETA MAKINA ELEKTRIKOAK/AUTOMATIZACIÓN Y MAQUINAS ELECTRICAS					
Mekanikoentzako elektrizitatea <i>Electricidad para mecánicos</i>	40	2022/02/14 2022/03/08	18:00-21:00	---	☒
TIA PORTAL Programazioa <i>Programación TIA PORTAL</i>	40	2022/03/07 2022/03/29	18:30-21:00	---	☒
Eskema elektrikoaren diseinua EPLAN sistemekin <i>Diseño de esquemas eléctricos con EPLAN</i>	30	2022/03/14 2022/03/31	18:00-20:30	---	☒
Robotika <i>Robótica</i>	40	2022/04/25 2022/05/19	18:30-21:00	---	☒
FABRIKAZIO MEKANIKOA / FABRICACIÓN MECÁNICA					
NX CAM Fresagailu ikastaroa 2 ½ ardatz eta 3 ardatz <i>CAM NX Mecanizado fresadora 2 ejes ½ y 3 ejes</i>	40	2022/01/17 2022/02/10	18:30-21:00	---	☒
4.o INDUSTRIA/INDUSTRIA 4.o					
Material polimeriko eta metalikoen 3D inpresioa – Fabrikazio aditiboa <i>Impresión 3D de materiales poliméricos y metálicos – Fabricación aditiva</i>	30	2022/05/20 2022/07/01	08:00-13:00	---	☒
PLANOEN INTERPRETAZIOA ETA INDUSTRI DISEINUA/INTERPRETACIÓN DE PLANOS Y DISEÑO INDUSTRIAL					
Galdaragintza eta eraikuntza metalikoetako planoen interpretazioa <i>Interpretación de planos de calderería y estructuras metálicas</i>	50	2021/11/15 2021/12/22	18:30-21:00	---	☒

IKASTAROA	Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
CAD 3D Modelaketa, eta planoak (Solid Works) CAD 3D Modelado y planos (Solid Works)	40	2022/02/07 2022/03/07	18:30-21:00	---	☑
CAD 3D Eraikuntza metalikoetako irudikapena (Solid Edge) CAD 3D Representación de construcciones metálicas (Solid Edge)	60	2022/03/21 2022/05/12	18:30-21:00	---	☒
BULEGOTIKA/OFIMATICA					
Excel 2.maila Excel nivel II	30	2021/11/22 2021/12/13	16:00-19:00 18:00-21:00	---	☒
Excel 1.maila Excel nivel I	30	2022/03/16 2022/04/06	16:00-19:00 18:00-21:00	---	☒
SOLDADURA / SOLDADURA					
Elektrodo bidezko soldadura era horizontalean Soldadura con electrodo en posición horizontal	60	2021/11/15 2021/12/22	18:00-21:00	---	☑
MAG Soldadura karbonodun altzairuan Soldadura MAG de acero al carbono	60	2022/01/24 2022/02/24	18:00-21:00	---	☑
KUDEAKETA / GESTIÓN					
ISO9001, ISO14001 eta ISO45001 arauen arabera kudeaketa sistema integratua Sistema de gestión integrado según requisitos de las normas ISO9001, ISO14001 e ISO45001	24	2022/01/24 2022/02/08	17:30-19:30	---	☒
CURSO AVANZADO GESTIÓN INDUSTRIAL	168	2022/02/14 2022/10/14	15:30-19:30	4100€	☒
ISO14001:2015 arauaren arabera ingurumen kudeaketa sistema baten ezarpena Implantación de sistemas de gestión medioambiental según la norma ISO14001:2015	20	2022/05/16 2022/05/19	17.30-20:00	---	☒
ENTSEGU EZ SUNTSITZAILEAK / ENSAYOS NO DESTRUCTIVOS					
Ultrasoinuak 2.maila Sarbide Zuzena Ultrasonidos nivel 2 acceso directo	144	2021/09/27 2021/11/09	08:00-13:00	3203€	☑
Ikuskapen bisuala 2.Maila Sarbide Zuzena Inspección Visual Nivel 2 Acceso Directo	44	2021/11/15 2021/11/29	10:00-14:00	690€	☑
Likido Sarkorrak 2.Maila Sarbide Zuzena Líquidos Penetrantes Nivel 2 Acceso Directo	40	2022/01/24 2022/02/04	10:00-14:00	720€	☑
Partikula Magnetikoak 2.maila Sarbide Zuzena Partículas Magnéticas Nivel 2 Acceso Directo	48	2022/02/14 2022/02/23	08:00-14:00	800€	☑
Partikula Magnetikoak 2.maila Sarbide Zuzena Partículas Magnéticas Nivel 2 Acceso Directo	48	2022/05/02 2022/05/11	08:00-14:00	800€	☑

2. ERAKUNDEAREN EGITURA

Ondorengo diagramak Goierri Eskolako egitura azaldu du, bezeroenganako orientazioa, Kudeaketa Unitateetako antolaketa eta prozesuen bidezko kudeaketa bertan agerian jarri direlarik:



Antolaketaren gailurrean bezeroak ditugu (ikasleak, familiak, enpresak, eta abar) eta hauekin harreman zuzenean Kudeaketa Unitateetan banaturiko irakasle eta ez – irakasleak. Guzti hauen beharrei erantzuteko prozesu multzoa dugu. Prozesu hauetako arduradunek Zuzendaritza osotzen dute. Urteko Planen garapena prozesu hauen bitartez egiten da eta haiek lortutako emaitzak Kokapen Estrategikora bideratzen dira Plan eta Estrategia berriak defini ditzan.

Aipatu antolaketak hiru helburu hauek ditu:

- Bezeroen beharrei modurik egokienean erantzun.
- Lidergo partekatua garatu, pertsona bakoitzak bere zereginaren erantzule izanik eta erabakiak hartzeko askatasuna bermatuz, beti ere arau, plan eta prozesuek diotena bermaturik.
- Prozesuen bitartez Helburu Estrategikoen hedapena ziurtatu.

2.1. GELA ETA BALIABIDE MATERIALAK

Aipatu aktibitate guzti horri aurre egiteko, ondorengo azpiegituraz baliatu ginen:

Baliabideak	Kopurua	Oharrak
Gela Arruntak	26	
Informatikako Gelak	11	6 CAD-CAM, CATIA, CNC. 2 Automatismoak. 2 Telekomunikabideak
Metrologia laborategia	1	
Soldadura laborategia	2	1 Ultrasoinuak. 1 partikula magnetikoak
Mekanikako tailerrak	3	1 Mantenimendua, 1 CNC, 1 tailer konbentzionala
Soldadura tailerra	1	
Galdaragintzako tailerra	2	
Elektrizitateko tailerra	2	
Neumatika/hidrauliko tailerra	1	
Mediateka	1+3	1 talde lanetarako gela handi. 3 talde lanetarako gela txiki.
Mediateka informatika	1	15 PC + 3 PC eramangarri
Areto Nagusia	1	165 lagunentzako
Bideokonferentzia gela	1	10 lagunentzako
Bilera gelak	11	

2.2. GIZA BALIABIDEAK

Aurreko aktibitatea gara ahal izateko ondorengo giza baliabideak aurreikusi ziren:

Taldea	Kopurua	Azpitaldea	Kopurua
Irakasleak	57		
Ez irakasleak	10	Idazkariak	3
		Mantenimendua	2
		Mantenimendu informatikoa	1
		Administrazioa	2
		Orientazio eta enplegu zerb.	2

Eta pertsona horiek horrela antolatu ziren Kudeaketa Unitateetan:

Kudeaketa Unitatea	Pertsonak	Kargua
Oinarrizko Lanbide Heziketa	Maite Erauskin	Unitate Burua
	Imanol Aranburu	Irakaslea
	Iñaki Mauleon	Irakaslea
	Mikel Urteaga	Irakaslea
	Axel Mendiluze	Irakaslea
	Pedro Angel Llamas	Irakaslea
	Iosu Martinez	Irakaslea
	Xabier Aguado	Irakaslea
	Silvia de Prada / Leire Talavera	Irakaslea
Administrazio eta Finantzak	Miren Ojanguren	Unitate Burua
	Angel Eguren	Irakaslea
	Goyi Gozalo	Irakaslea
	Lorea Garitagoitia	Irakaslea
	Ainhoa Camio	Irakaslea
	Hodei Sagarzazu	Irakaslea
	Lorea Sánchez (GG)	Irakaslea
	Alicia Gómez (GG)	Irakaslea
Elektrizitatea	Iñigo Palomo	Unitate Burua
	Eneko Mujika	Irakaslea
	Joseba Barandiaran	Irakaslea
	Iñaki Kortaberria	Irakaslea
	Iñaki Zabalo	Irakaslea
	Estebe Ormazabal	Irakaslea
Eraikuntza metalikoak	Adur Leunda	Unitate Burua
	Mikel Iparragirre	Irakaslea
	Peio Etxezarreta	Irakaslea
	Miren Iartza	Irakaslea
	Jon Etxezarreta	Irakaslea
	Jon Leunda	Irakaslea
	Mikel Agirre	Irakaslea
	Harriet Alustiza	Irakaslea

Kudeaketa Unitatea	Pertsonak	Kargua
Mekanika	Miguel Angel Cestau	Unitate burua
	Kattalin Beitia	Irakaslea
	Haritz Erauskin	Irakaslea
	Iker Etxezarreta	Irakaslea
	Juan Cruz Eceiza	Irakaslea
	Jose Manuel Hernandez	Irakaslea
	Mikel Arizkorreta	Irakaslea
	Joseba Iztueta	Irakaslea
Ingeniaritza	Jose Ignacio Vicente	Unitate burua
	Ramon Aldanondo	Irakaslea
	Aitor Zuriarrain	Irakaslea
	Iker Agirre	Irakaslea
	Jon Otegui	Irakaslea
Batxilergoa	Idoia Otaegui	Unitate Burua
	Joseba Ramos	Irakaslea
	Jose Ignacio Insausti	Irakaslea
	Josebe Telleria	Irakaslea
	Jon Aranburu	Irakaslea
	Mikel Landa	Irakaslea
	Oihane Cachón / Leire Bujanda	Irakaslea
	Amaia Cerdán	Irakaslea
	Nagore Zazpe (GG)	Irakaslea
Orientazioa	Mikel Azkarate	Orientatzailea
Zuzendaritza	Carlos Ormazabal	Fundazioko Gerentea
	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Mikel Azkarate	Haserako Hezkuntzako Ard.
	Luis Alberto Aramburu	Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzako Ard./Idazkaria
	Juan Urteaga	Praktiketako Arduraduna
	Jose Mari Alkorta	Kanpo harremanetarako arduraduna
	Juanjo Igarzabal	Berrikuntza arduraduna
	Alazne Ormazabal	Administrazioko arduraduna

Zuzendaritza kontseilua	Idoia Otaegui	Unitate Burua
	Maite Erauskin	Unitate Burua
	Adur Leunda	Unitate Burua
	Miren Ojanguren	Unitate Burua
	Iñigo Palomo	Unitate Burua
	Miguel Angel Cestau	Unitate Burua
	Estitxu Urkia	Unitate Burua
	Jose Ignacio Vicente	Unitate Burua
	Luis Alberto Aramburu	Kalitate Arduraduna/Idazkaria Ez Arautuko Arduraduna
	Alazne Ormazabal	Arduradun Ekonomikoa
	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Jose Mari Alkorta	Kanpo harremanetarako arduraduna.
	Juanjo Igarzabal	Berrikuntza arduraduna
	Juan Urteaga	Praktiketako Arduraduna
	Carlos Ormazabal	Fundazioko Gerentea
	Xanti Iruretagoiena	Ikaslango Zuzendaria
Eskola Kontseilua Lanbide Heziketa	Zentro Integratua izanik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eskatu ziguten Kontseilu Soziala oraindik ez eratzeko, itunpeko ikastetxeetako Kontseilu Soziala arautu behar duen dekretua argitaratu arte. Ikasturte osoa joan da eta oraindik ez da argitaratu.	Gurasoen ordezkaria
		Gurasoen ordezkaria
		Gurasoen ordezkaria
		Ikasleen ordezkaria
		Ikasleen ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Ez irakasleen ordezkaria
Eskola Kontseilua Batxilergoa	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Luis Alberto Aramburu	Idazkaria
	Miguel Pérez	Gurasoen ordezkaria
	Mónica de Arriba	Gurasoen ordezkaria
	Aitor Iturrioz	Gurasoen ordezkaria
	Endika Txasko Posa	Ikasleen ordezkaria
	Aimar Jaca Aranguren	Ikasleen ordezkaria
	Kepa Zuriarrain	Titularraren ordezkaria
	Adur Ezenarro	Titularraren ordezkaria
	Mikel Plazaola	Titularraren ordezkaria
	Joseba Ramos	Irakasleen ordezkaria
	Josebe Telleria	Irakasleen ordezkaria
	Jose Ignazio Insausti	Irakasleen ordezkaria
	Idoia Otaegi	Irakasleen ordezkaria
	Estitxu Urkia	Ez irakasleen ordezkaria

2.3. PROZESUEN JARDUERA

Ondorengoek prozesu bakoitzaren jarduerak eta hurrengo ikasturterako aurreikuspenak laburbildu dute:

2.3.1. KOKAPEN ESTRATEGIKOA

LEHko eskaintza neurrirako eskaintzara bideratzeko ahalegin desberdinak egiten jarraitu dugu. Goierri Valley-ekin dugun hitzarmenaren arabera, hauekin planifikatutako formazio ekintza batzuk burutu ditugu. Espero dugu honek etorkizunean aukera gehiago bideratzea.

SEAS-en bitartez Somorrostroarekin egindako eskeintzaren irteera atzeratzen joan da, eta planifikazio bat burutu dugu 2023ko urtarrilean kurtsoak plazaratzeko. Horretarako lan taldeak ostau ditugu Somorrostro eta gure artean, kurtsoen kostea eta prezioak kalkulatzeko, kurtsoen egitura gaurkotzeko, eta hauen komertzializaziorako. 22ko azken hiruhilabeterako planifikazioa egin da.

Txiletar ministeritzarekin ere kontaktua mantendu dugu, baina esan digutenez, 2023 urterarte behintzat ez da programa habian jarriko.

Dual proiektuen instruktoreen formazioan parte hartzen ari gara Adegí eta Sailburuordetzarekin batera. Honekin batera, Dual sistema berria ere martxan jarri da aurtengo goi mailako talde guztiak parte hartu dutelarik. Balorazio positiboa izan du parte guztien artean.


Lidergoari buruz, ikasturte honetan Kudeaketa Unitateen eta Zuzendaritza Taldearen arteko bilerak berreskuratu ditugu. 4 bilera burutu dira, Eraikuntza Metailkoko KUa, PAAF (pertsonen arreta eta Administrazio eta Finantzak) KUa, Oinarritzako Lanbide Heziketa KUa eta Administrazio eta Zerbitzuko KUarekin. Azken hauekin hala ere, beste gai orokorrak lantzekotan beste bilera bat egitea erabaki genuen.

SOI kudeaketari dagokionez, batetik Lazkaoko ibilbidea burutu da. Bestetik Hetel-en Garapen Jasangarriko Helburuak oinarritzat duen Lan Taldea osatu da, eta Goierri Eskola da talde horren liderra. Ekintza desberdinak burutu dira ikasturtean zehar talde hori kudeatzeko.

Azkenik, urtariletik hona, 2022-25eko Estrategia berriak definitzeko prozedura landu dugu ere. Hainbat ekintza burutu dira, interés talde desberdinekin world cafeak, dinamikak, galdetegiak eta elkarriketak eginez. Uztailaren hasieran estrategia berriak komunikatzeko dinamika bat ere burutu da. Alpatzekoa da estrategia berri hauekin batera, Bilkain erreminta utzi (serbidorearekin arazoak ematen digu dagoeneko) eta SIP erremintarekin arituko garela.

2.3.2. PERTSONEN KUDEAKETA

Prozesu honetako helburu gehienak, pertsonalaren satisfazioarekin erlazionatuta daude. Honekiko geneuzkan helburuak lortu izan dira. Aurreko urtekoarekiko, honela aldatu dira:



Prozesuaren helburuekiko, Formazio plana aurkezteko eta lehentasunen arabera erabakiak hartzeko prozesura mantentzen da eta Zuzendaritza Kontseiluan berriro ere azaldu eta aplikatu da. Inbertsioekin egiten dugun moduan, Prozesu eta KU-etako eskaera guztiak jasotzen dira formulario baten bitartez eta Zuzendaritza Kontseiluan lehentasunen arabera urteko plana onartu da.

Eragiketen kontrola aplikazioa ere mantentzen da, Formazio Planen eraginkortasunaren ebaluazioa egin ahal izateko eta pertsonen satisfazio maila formazioarekiko adierazteko. Eragiketen kontrolerako erabiltzen dugun aplikazioa berritzeko irizpideak ere landu dira. Aplikazioa berritzeko prozedura martxan jarri da, eragiketen kontrola egiteko aplikazio eraginkorrago bat izateko, baina oraindik ez dugu bertsio berria. 22/23 ikasturtean aplikatu nahiko genuke.

Ikerkuntza proiektuetan parte hartzea izatea lortu dugu, eta proiektu berrien kudeaketan, pertsonalaren inplikazioa areagotzea ere lortu dugu, Tknikako proiektuetan eta MEC proiektuetan parte hartu dugularik. Bestetik, internazionalizazio programak ere martxan jarri dira, astesantutik aurrera, irakasleen arteko mobilidadeak burutu direlarik.

Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzan, espezialista sarea izateko bilaketarekin ari gara. Egia da lortzen ditugula momentuko irakasleak baina sarea zabaltzen eta egonkortzen jarraitu beharrean gaude, END eta Elektrizitateko arloetan bereziki.

Aurten Tknikaren eskutik Ikastetxeen Eredu Berrian parte hartzen jarraitu dugu, zuzendaritzako postu berriei egokituz. Zuzendari Exekutiboaz gain, beste kargu "ofizial" batzuk izendatu ditugu: Estrategi Zuzendaria, Berrikuntza Zuzendaria, Zuzendari Operatiboa, Aldaketaren Kudeatzailea eta Sistemen Arduraduna. Hauen funtzio eta zereginaz gain, bakoitzaren taldea eta erlazioa definitzen ari gara Tknikako jarraibideak kontuan hartuz. Horretarako formazio/informazio saio asko izan ditugu. Erakundearen Autoebaluaketa bat burutu dugu eta hobekuntza eremuak adierazi.

Lidergoaren gaitasunen garapena sendotzeko Goierri Valley-ren bitartez laguntza batzuei esker formazio ekintzak egin ditugu. Ikasturte honetan, Ingroup-ek Goierri Valley-eko erakundeei pertsonen ongizatea neurtzeko prozesu batetan parte hartu dugu, hauen emaitzak gure barne inkestekin konparatuz. Emaitzak beste erakunde eta enpresekin alderatuta gainera egon dira.

Arrisku Psikosozial arloan ere diagnosia berriro dugu. Elkarriketa eta galdetegien bitarteko prozedura jorratu da eta emaitzak ere aztertuko dira datorren ikasturteko hasieran. Hauen emaitzak, Ongizatearen emaitzak eta barne galdetegiko emaitzak aztertu eta PK prozesuko helburuetan kontuan hartuko dira.

Azkenik, COVID19ak sortutako egoerari aurre egiteko, pertsonalarekiko behar izan ditugun protokoloak diseinatu, egunean izan eta aplikatzen joan gara ikasturte guztian zehar.

2.3.3. MERKATUKO DEFINIZIO ETA KOKAPENA

LEH-ko jarduera neurrirako eskaintzara bideratzeari dagokionez, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean, gure LEH-ko aktibitatea areagotzea ez da lortu.

Aldiz, enpresei neurrira emandako ikastaroetan, %115-a lortu da, batipat SES edo saiakuntza ez-suntsitzaileen alorrean.

HH jardueran, talde kopurua mantentzeari dagokionez, matrikulazioa %800 ikasletik gora mantentzea lortu da, 815 ikasle izango ditugularik datorren 22-23 ikasturtean. Galdaragintza alorrari loturiko zikloetan aurreko ikasturtetan izan diren zailtasunak hobetu egin dira, matrikulazio igo egin delarik, taldeak mantenduz. Bestalde, AR3 zikloan beherakada somatu da eta adi egon beharko da zein bilakaera duen ikusteko.

Gizartean eragina areagotzeko helburuaren inguruan, bailarako DBH-ko ikastetxeekin ekintzak burutu dira, STEAM ikuspegia zabaltzeko, gure ikasleek DBH-ko ikasleen “irakasle” rola beteaz. Ekintza hauek burutu diren arren, ez da STEAM ikuspegia hedatzeko bestelako ekintzarik burutu. Horrela, helburu orokor hori, %66an bete dela adierazi daiteke.

Bestalde, etorkinen lan-munduratzeari dagokionez, perfil horretarako pertsonen zuzendutako ikastaroak eskaini dira, oinarritzko gaitasunei ingurukoak, helburua %75n beteaz.

Kokapen teknologiko bikainaren helburuaren inguruan, fabrikazio aditiboko masterraren egonkortzea ez da lortu. Ikasle kopuruak behera egin du eta datorren 22-23 ikasturterako taldea mantentzea ez da lortu. Saio ez-suntsitzaileen formazioaren inguruan, eskaintza areagotzeko ekimenak ez dira guztiz bete. Lehen aldiz Phased Array-ko ikastaroa eskeini den arren, ez da berdina gertatu Termografia-ko ikastaroarekin, ez baita irten. Horrela, eskaintza berriaren gertaera horrekin eta emandako ikastaroen orduak kontutan edukiz, helburua %58n bete dela esan daiteke.

2.3.4. HASIERAKO HEZKUNTZA

2021 ikasturteko helburuen betetze maila ezberdina izan dugu. Bezeroari hezkuntza integrala emateko asmoarekin ezarritako ekintzak burutu dira. Ekintza horien artean gaitasun sozialak areagotzeko zeharkako konpetentzietan oinarritutako metodologia bultzatuz. Bailarako ikastetxe pare batean, Steam-en oinarritutako erronkak eman dira aurrera. Batxilergoko ikasleak izan dira erronka horien dinamizatzailerak. Bestalde batxilergoko ikasleekin ere Udako Kanpamendu teknologikoak berreskuratu dugu. Bertan 9 ikasle eta 2 ikasle ohi aritu dira.

Martxoak 08rako, emakumearen nazioarteko egunerako dinamika batzuk presatu ziren mikromatxismoaren inguruan. Horretako bideo batzuk ikusi eta debatea bultzatu zelarik talde guztietan.

Iaz pandemiarengatik egiterik izan ez ziren akreditazio gehigarriak berreskuratu ditugu. Bai iaz egin behar zituzten ikasleentzako, baita aurtengoentzat ere. Hurrengo urteari begira, metalezko hitzarmenak ekarri dituen formakuntza beharrak ikastetxean nola txertatu aztertu eta antolatu dugu. Horretarako, Lan arriskuen prebentzioan homologatu dugu irakasle bat.

Bestalde, giza balioak indartzeko, ekintza ezberdinak ezin izan dira nahi genituen bezala egin; SOI ihardunaldiak, GOAZEN ORDIZIA, e.a. bezalako balioen sentsibilizazio ekintzak bertan behera geratu dira Covid19 pandemiak mugikortasuna asko mugatu duelako.

Hezkuntza integraleko beste zutabe bat tutoretzaren ardatza sendotzea da. Alde honetatik irakasle gida bilduma osatzen hasi ginen baina ez diogu jarraipenik eman. Gai hau birplanteatu behar dugu. Ez bere beharra eztabaidan jartzea baizik eta bera gauzatzeko bidea berraztertuz.

Ikasleen zeharkako gaitasunak jorratzeko intentzioarekin, metodologiaren eraldaketa zabaldu dugu. Horrela OLH mailako zikloetan ere hedatu da modulu ezberdinen arteko ikaskuntza aktibokolaboratiboa. Esan, eskola mailan homogeneizazio plan bat dugula. 2021 ikasturtean etapa bakoitzean zenbat erronka, zein momentutan eta gutxi gora behera zenbat iraun behar duten adostu da talde pedagogikoan. Bestalde ebidentziak jasotzeko taula osatu eta berrikusi dugu urtean zehar.

“Aprendizai eta zerbitzu” modalitatean lehen pausoak eman dira eta KELLESENSA izeneko GKE batekin egon gara lanean urte osoan. Senegaleko ezgaitasun fisikoa duen Azid izeneko gazte batentzako neurrirako karro bat diseinatu eta ekoiztu dugu eskolako ziklo ezberdinen artean.

IKTaren inguruan berriz, aurrera pauso handia eman da. Bizi izan dugun Covid19 pandemiak ekarri zuen etxeratzeak, eskola guztian Office 365en erramintak, Citrix eta EVA erabilera bultzatu zuen. Horrela urte honetan erakundeko langile zein ikasleek ere office365ko kontu bat izan dugu. Erraminta hauek ahalbideratu dute egunerokotasuna mantentzen.

Bestalde prozesuarekin zerikusia duen adierazle batzuk, helburuak, historikoetan oinarritutako emaitzekin ezartzea komenigarria dela adierazi ziguten ikuskariak. Horrela egin zen, historikoan oinarritutako helburuak finkatu eta gero urtean zehar eman diren emaitzak berarekin parekatu.

Ikusi denez, 20/21 ikasturteko gaingidituen helburua iazkoa baina okerrago izan da baina aurreko urteetakoaren berdina. Iazko emaitza onak Covid19aren ondorioz hezkuntza sailak hartu zituen erabakien ondorioa izan zela ondorioztatzen dugu. (3. hiruhilabeteko edukiak ez ziren erabakiorrak izan ikasleen kalifikazioetan).

Azkenik, Ikaslan Fundazioarekin elkarlana indartzeko, prozesua doitu egin da. Horrela lan praktika ezberdinak baloratzeko erabiltzen diren txantiloak homogeneizatu eta kalifikazio horiek zuzenean Educamosen sartzeko aplikazioa prestatu da

2.3.5. LANERAKO ETA ETENGABEKO HEZKUNTZA

Aurreikuspenak, orduei dagokienean ez dira bete. 4790 ordu zen helburua eta 3677 ordutan geratu da. Emaitza, lanean ari direnei zuzendutako aktibitatearen erabateko beherakadak mugatuta egon da. Banaketa, hurrengo puntuan ikus daiteke.

Hurrengo ikasturterako aurreikuspenei dagokionean, honakoa esan dezakegu:

- Bi urtetarako Lanbideren deialdietarako eskariak aurkeztu genituen (Langabetuak eta lanean ari direnak). Baldintza ekonomikoak geroz eta okerragoak direla ikusita (gutxi ordaindu, itzulketak egin behar izateko baldintza zorrotzak...) alde batetik eta bestetik aipatutako aktibitatearen beherakada dela eta oso zuhur jokatu dugu deialdietan. Aurten gainera, behin behineko ebazpena bere osotasunean onartu edo baztertzeko aukera izango dugu soilik. Ez dakigu oraindik ebazpena zein izango den.
- Neurrirako ikastaroak helburu estrategikoa izan dira eta haietan ez da Txilerik izan ez eta 2022-23 ikasturtean izango (2023ko amaierarako aktibitatea berreskuratzea da gure esperantza) eta Udalentzako ikastarorik ez dugu izan eta ez dugu eskatuko ere. Bestetik, enpresentzako neurrira egindako ikastaroetan gorakada izan dugu aurreko ikasturtearen amaieran eta 2022-23 ikasturterako joera horri eustea espero dugu.



- Ohiko deialdietaz aparte, 2021-2022an Goiekiren eskutik Elkar Ekin Lanean proiektu batean eta emakume langabetuei zuzendutako deialdi batean ere parte hartu dugu.
- Gure eskaintzako ikastaroak (matrikula bidezkoak) aurrera atera ahal izan ditugu, baina MUrekin elkarlanean ez dugu ikastarorik ematea lortu (ez haien katalogokoa gure kanpusean, ez eta gureak haienean ere).

Urrutirako formazioan, nahiz eta gure ikastaro bat eskaintzeko aukeraraino ailegatu ez garen, hura diseinatu genuke. Somorrostro ikastetxearekin elkarlanean SEAS enpresarekin batera gure eskaintza egiteko aukera landu dugu. 2021-2022 ikasturtea gure partehartzea definitzen joan zaigu. 2022-2023an lehenengo ikastaroak abian jarriko ditugu.

Etorkinei zuzendutako formazioa eskaintzeari lotutako helburua eskuratu da: oinarritzko gaitasunei loturiko ikastaroa eman da eta Goiekik bultzatutako proiektu berezian parte hartu dugu. 2022-2023 ikasturterako proiektu berri bat eskatuko dute.

Kanpotik etorritako irakasleen kasurako haien ebaluazio-irizpideak definitu eta gogorarazi zaizkie. Irakasle guztiei beraien ebaluazioa jakinarazi zaie. Irakasleen satisfazioa bigarren urtez galdetu dugu eta berriro ere oso emaitza onak izan dira.

Saio ez suntsitzaileetako formazioan, MT1 ikastaroak ematen jarraitu dugu eta Phased Array ikastaro bat ere eman dugu. 2022-2023 ikasturtean jarraitutasuna izango duela espero da (bai MT1, baita Phased Array ere). Era berean, SES-en kudeaketa eta garapenerako talde bat osatu da.

Azkenik, COVID-19ak sor zitzakeen egoerei aurre egiteko prestatu gara eta lortu dugu ikastaroak normaltasunez ematea. Zorionez, etorkizunerako ez da aurreikusten egoera errepikatuko denik, baina behintzat honetan erantzuteko prestatuago egongo ginateke.

2.3.6. BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

Planifikatutako ekintzak modu egokian garatu ziren eta finkatutako helburuak lortu ziren, emaitza ezik. Gauzatutako inbertsioak 2020 urtean 380.000€tara iritsi dira erreferentzia 300.000€ zelarik. Urtearen amaieran Hezkuntza Sailak argitaratutako ekipamenduen deialdiari erantzun ahal izateko gertatu zen desbiderapena. Kontabilitate prozesua egoki kudeatu da, eta horren ondorioz 2020ko ikuskapen ekonomikoa ongi amaitu da. Deskargua egiteko beharrezkoak izan diren euskarriak diseinatu dira eta baliagarriak izan dira. Sarrera eta gastuei segimendua egin zaie, 2020ko itxiera ikuskatu ostean -219.6911,00 €etan geratu da, LEHrako sarreraren aurrekontua 622.411€koa izan zen eta itxiera 454.306,97€koa izan da eta 2020ko aurrekontuak gauzatu dira.

Aurrekontua definitzeko momentuan, hainbat egoera (Lanbide, Hobetuz, Kontzertuak, etab.) kontuan hartu dira. 2021ko aurrekonturako kontuan hartu dira kontzertu kontzeptu pean izango ditugun sarrerak: 3.749.000€. LEHko aktibitatearen sarrerak igotzeko aurreikusi ziren arren, jaitsi egingo dira; arrazoiak: Txiletar talderik ez da izango eta Covid19aren eraginez Udalek babesten duten kurtisorik ez da izango eta momentuz oso joera beharokorra dugu lanean ari direnei zuzendutako formazioan. Azken hau 2020 urtean dena ematea aurreikusita genuen eta ezinezkoa izango zaigu, 21/22 ikasturterako, LEHrako aurrekontua 407.000€koa aurreikusi zen.

Zaharberritze kapitulua mantenurako gastuaren aurrekontua iazko erreferentzia harturik mantendu egin dugu, hau da 250.000€. Bi zatitan banatuta daude: mantenu orokorrerako (125.000€) eta informatika mantenurako (125.000€).

Aurreikusitako aktibitatearen baitan gastuak eta sarrerak kontuan hartu dira aurrekontua definitzeko.

2021 urterako aurreikusi eta patronatu batzordean onartu zen emaitza 7.000€koa da. 250.000€ partida kontuan hartu da inbertsiotarako. Era berean, Eskola kudeatzeko erabiltzen diren prozesuentzat baliabide ekonomikoak kontsideratu dira %100an. Emaitza erdietsiko dela espero badugu ere, aurrekontuak aktibitate eta sarreraren hipotesitan oinarriturik egin

direla kontuan hartu beharra dago; betiere aldaketak izan ditzakegu eta, ondorioz, hainbat partiden desbideratzeak izan.

Mantenu informatikoa eta orokorra ongi kudeatzeko NAVISION izeneko aplikazioan, kontuen eskema pertsonalizatuak sortu dira. Eskema hauek kudeatzaileei laguntzeko prestatuta daude.

Era berean, adierazleen berrikusketa egin da, eta esanguratsuak direnak mantendu dira, ondorengoak direlarik: “BEK: Gastu orokorra”, “BEK: Diru sarrerak”, “BEK: Emaidza ekonomikoa”, “BEK: Inbertsioak”, “BEK: Aparteko diru sarrerak”, “BEK: Altxortegi ratioa”, “BEK: Likidezi ratioa”, “BEK: Kaudimen ratioa”, “BEK: Cash-Flow”, “BEK: Bermea”, “BEK: Autonomia Finantzarioa”, “BEK: Zorpetze ratioa”, “BEK: Kontzertuz kanpoko sarrerak”, “BEK: Epe luzeko mailegua”, “BEK: Epe motzeko mailegua”.

Emandako zerbitzuen adostasunari dagokionez, esan, ikuskapen ekonomikoko txostenean oinarriturik, kudeaketa egokia izan dela eta ez direla doikuntzak egin behar. GHEFko patronatu batzordeak ikuskatutako txostena onartu du 2021eko ekaineko bileran.

2.3.7. BALIABIDE ETA AKTIBOEN KUDEAKETA

BAK prozesurako jarritako 23 gehienetan eman dira aurrerapausoak, . Gastu eta inbertsioetarako jarritako aurrekontuak errespetatu dira. Aipagarriak dira besteak beste

Energia kontsumoak murrizteko hasierako pausoen, kontrola eta monitorizazioari dagokionean pauso esanguratsua eman da, aplikazio baten garapenarekin, memoriaren idazketa momentuan, sistema martxan dago eta intranetean guztion eskuragarri egotea falta da.

Honekin batera energia elektrikoaren kontratazio baldintzak aldatu dira, kontratatutako energia 200kw tara murriztuz

GUNEI DAGOKIOENEAN:

NDT lab gunearen lehen fasea amaitu da eta memoriaren idazketa momentuan laborategien egokitzapenetan ari dira, 2. fasearekin, 22/23 ikasturtean hasi eta abendura bitartean emango dena.

Gune digital berrien ezarrera egin

- **Gela inmersiboa**
- **Gela interaktiboa**
- **Gela adimenduna + living lab gunea**
- **Informazio pantailak ezarri dira**
- **Eduki digitala sortzeko gela**

Bestelako guneei dagokionean, 4103 gela, mintegi mekanikoa, auto mekanika tailerra, enplegu zentro gela, ez dira aurrera eraman aurreikusitako ekintzak

BALIABIDEEI DAGOKIONEAN (informatikoak eta bestelakoak)

Proiektore komunikazioa kablerik gabekoa bermatu da gela guztietan, geletako PC IRA desagertu da

2104 gelaren pc ak egokitu egin dira, osagai berriak ekarri

Citris vs ods azterketa egin da, eta citrix arekin jarraitzen dugu

